fagorederlangroup

PERTSONEN POLITIKA

PERTSONEN POLITIKA

1. Helburua

Pertsonen politika pertsonen garapenerako erreferentziazko esparru bat da Fagor Ederlan Taldearentzat; izan ere, jokabide eta harreman arduratsu eta iraunkorrak dituzten pertsonak garatzeko gida bat harentzat. Politika honek printzipioak definitzen ditu eta konpromisoak ezartzen ditu, zeinak helburu, estrategia eta jarduera ildo espezifikoen bidez gauzatzen diren, Fagor Ederlan Taldearen estrategietan eta gestioan integratuta.

2. Aplikazio eremua

Pertsonen politika hau Fagor Ederlan Taldearen jarduera, negozio eta langile guztiei aplikatu beharrekoa da, baita balio katearekin eta beste interes talde batzuekin dituzten harremanei ere.

3. Konpromisoak

Fagor Ederlan Taldeak Garapen Jasangarriaren aldeko apustua egiten du, **dimentsio soziala** izanik horretan laguntzen duten zutabe nagusietako bat, eta horretarako konpromiso hauek hartzen ditu:

- **Kudeaketa Sistema** bat izatea, zeina, indarrean dagoen legedia eta eskualde bakoitzeko barne araudia betetzeaz gain, ikuspegi proaktiboarekin eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin ezarrita egongo den.
- Plan Estrategikoei eta Gestio Planei erantzuteko **behar besteko pertsona gaituak eta motibatuak** izatea, eta honako arlo hauek garatzea:
  - Pertsonak **proiektu kooperatiboarekin konprometituta** eta inplikatuta egotea sustatzea
  - **Enplegu egonkorra eta kalitatekoa** sortzea, gure ingurunearen garapen sozioenpresarialean eta aberastasunaren banaketa orekatuan lagunzeko.
  - Pertsonen eta erakundeen **elkarren arteko lankidetza** sustatzea, elkartasun mekanismoak eta erresilientzia handiagoa sortzeko.
  - **Lan ingurune seguru eta osasungarria** bermatzea.
  - **Pertsonen garapena** sustatzea etengabeko prestakuntzaren eta barne sustapenaren bidez eta ondo egindako lana aitortuz, gogobetetze pertsonala eta autoestimua sustatuta.
  - **Pertsonek** enpresaren gestioan eta emaitzetan **parte hartzea** sustatzea, konpromiso, motibazio eta nortasun handiagoa sortzen duten antolakuntza eredu parte hartzaile eta malguen bidez.
  - **Lidergo eredu** bat diseinatzea eta ezartzea, gure kultura eta balioak Talde osoari transmititzeko, berrikuntza sustatzeko eta gaitasun pertsonalak sustatzeko, gure lantaldeak garatuz eta gure erronka estrategikoak lortzeko beharrezkoak diren gaitasun, ahalmen eta tresnak emanez.
  - Pertsonen **berdintasuna** sustatzea, egindako lan beragatik ordainsari berdintasuna ziurtatuz.
  - Pertsonen **aniztasuna** aitortzea (jatorria, arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, etab.), edozein arrazoirengatik diskriminazioa debekatuz eta aniztasunaren aitortza betetzen dela bermatzeko tresnak ezarriz
  - **Inklusioa** sustatzea, edozein diskriminazio mota prebenitzeko eta arintzeko neurriak ezarriz.
  - Gure langileen bizitza pertsonala eta familia bizitza **bateragarri** egiteko aukera ematen duten lan malguko aukerak ematea.
  - **Giza Eskubideak eta Lan Baldintzak** errespetatzea gure lan guztietan, edozein diskriminazio, errepresalia edo jazarpen mota baztertzeko eta lan behartua eta haurren lana ez onartzeko ahaleginak bideratuz.

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.

4. Onarpena eta jarraipena

- **Onarpena:** Politika hau Fagor Ederlan Taldeko **Zuzendaritza Kontseiluak** landu eta onartu du, eta bera da politikaren aplikazioaren arduraduna. Horrela, beraz, agerian geratzen da goi zuzendaritzak Jasangarritasun Estrategiarekin duen konpromisoa eta enpresaren estrategia globalean integratzen dela ziurtatzen da.

- **Jarraipena: Batzorde Soziolaboral** bat dago, exekutiboko kideek eta langileen ordezkariek osatua, politika horren inplementazioa gainbegiratzeko eta Fagor Ederlan Taldearen Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseilu Errektoreari zuzenean informazioa ematen diona.

- **Berrikuspena:** Politika hau berrikusi egiten da, eta, hala badagokio, eguneratu, aldizka, beti Fagor Ederlan Taldeak arlo horretan dituen anbizioak erakutsi nahian eta interes taldeen iruzkin eta iradokizunez gain legedian izandako aldaketak kontuan hartuta.

Data	**Nork onartua**
2025/10/21	Fagor Ederlaneko Zuzendaritza Kontseilua

Copyright ©, Fagor Ederlan, S.Coop. - Copyright, Confidential and proprietary, all rights reserved - property of Fagor Ederlan, S.Coop .This information carrier and the information it contains are the property of Fagor Ederlan, S.Coop. Any reproduction, disclosure or use of either is prohibited without the prior written consent of Fagor Ederlan, S.Coop. The same provisions apply to any oral communications related thereto accordingly.